

Industria-politikaren egia deserosoa



ROSER ESPELT
EKONOMIALARIA

Mundu mailako ekonomiak gorakada nabarmena izan zuen COVID-19aren ostean. Orain, baina, gorakada hori agortze-fase batera heldu den zantzuak agerikoak dira, krisi klimatikoak nabarmen baldintzatuta: munduko potentzia nagusien ekonomiaren hazkunde-tasa murrizten ari da, produktibitatea geldirik dago eta inbertsio berriztagarrien programa anbiziotsuak bertan behera geratzen ari dira errentagarritasun faltagatik.

Testuinguru horretan, diskurtso aldaketa egon da: merkatu librearen jada ez da arazo guztien konponbidea, *laissez-faire* dogma Milei bezalako pertsonaia-tara mugatuz doa. Badirudi adostasun berria ari dela sortzen, ekonomian esku hartze publikoaren aldekoa, hain zuzen. Ezker-eskuin, industria-politika itzultzen ari da. Oro har, merkatu librearekin beti kritikoak izan eta ekonomiaren kudeaketa publiko eta komunitarioa eskatzen dugunontzat, dudarik gabe, berri ona litzateke, baina, titularrez harago, edukiari erreparatu behar zaio, industria-politika guztiak ez baitira berdinak.

Pasa den urtean Hego Euskal Herriko enpresek 500 milioi euroko materiala ekoiztu zuten Espainiako Armadarentzat

Lehen adibidea, Next Generation funtsena: kapital handietara bideratu da, baina ez dago froga argirik maila produktibo eraginik izan duen baieztatzeko. Dena den, balizko keynesianismo ekologista berria zirudiena, gerra-keynesianismo klasikoagatik ordezkutzen ari dira. Europako Batzordearen defentsa-industriarako estrategia berria, horren erakusgarri: besteak beste, defentsara

bideratutako merkataritza barne mailan sustatzeko helburua ezartzen du, ekoiztiko materialen %50 Europar Batasunaren barruan saleros dadin 2030. urtea baino lehen.

Xake-taula horretan, non kokatzen gara? Bada, Euskal Herria esportatzailea izateagatik nabarmetzen da. Esportatzen dugunaren herena Alemania eta Frantziara doa, hain zuzen, gerra-ekonomiaren sustatzaile nagusiengana eta, zuzenean edo zeharka, defentsa-industriaren hornitzaile diren sektoreetara. Aeronautika, siderurgia eta ibilgailuak dira Alemaniari saltzen diogunaren erdia eta Frantziari saltzen diogunaren herena. Horrekin batera, %10 armak eta munitzioa dira. Hori gutxi balitz bezala, Delàs Bakerako Ikerketa Zentroaren arabera, pasa den urtean Hego Euskal Herriko enpresek 500 milioi euroko materiala ekoiztu zuten Espainiako Armadarentzat. Horrenbestez, Euskal Herriko industria-politika diseinatzeak egia deseroso horri aurre egitea eskatzen du eta, horren arabera, erabakitzea eskalada belizista honetan nola kokatu behar garen. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com